



Belaunaldi
berrien aukera
La era del
euskera

era, belaunaldi berrien aukera era, la era del euskera

Egungo gizartean, eleaniztasuna gero eta gehiago baloratzen den testuinguruan, Nafarroako familia askok aukeratzen du euskarazko irakaskuntza, bere seme-alabek etorkizunean aukera gehiago izanen dituztela pentsatzen dutelako. Nafarroako familia horiek askotarikoak dira: euskara asko erabiltzen den eremuetan bizi dira batzuk, besteak horrenbeste erabiltzen ez denetan; familian bestelako hizkuntzak daukate... Guraso horiek, euskaraz jakin ala ez, toki-entitateetako euskara zerbitzuetara jotzen dute hainbat zalantzekin; eta galderen helburua argia izaten da: seme-alaben hizkuntza-garapenean nola laguntzen ahal duten jakin nahi dute.

Eskaera horiek kontuan hartuta, Nafarroako toki-entitateetako 28 euskara zerbitzuek sortu dute era.eus webgunea, euskaraz ikasten duten haurren **gurasoei laguntza eta baliabideak eskaintzeko eta seme-alaben ikas-prozesua osatzeko**. Ikastetxeetan, haurrek dagozkien ezagutzak eta gaitasunak garatzen dituzte, baina euskarak gizartean duen presentzia desorekatua kontuan hartuta, **ezagutza eta gaitasun horiek eskolaz kanpo ere indartzea egokia da, esaterako, etxean, kultur jardueretan edo eskolaz kanpoko jardueretan**.

Gai horien inguruan gurasoei sortzen zaizkien zalantza asko bulegoetan edo antolatzen diren bestelako jardueretan argitu behar dituzte euskara zerbitzuetako langileek, eta, hemendik aurrera, webgune hau ere eskura izanen dute gurasoek, kontsultak egin eta informazioa jasotzeko.

Familiek dauzkaten beharren arabera, guri helarazitako eskaerak aberastuko dute webgune hau eta, **denon artean, belaunaldi berriak euskaraz hazteko bidea**.

Edukiak:

- Gurasoen ohiko zalantzak argitzeko informazioa.
- Interneten haurrentzat prestatutako edukiak: ipuinak, jolasak, musika, aplikazioak...
- 0-12 urte arteko haurren eskolaz kanpoko jardueren bilduma: kirola, ikastaroak, ludotekak...
- Haurrentzako euskarazko eskaintzaren berri emanen duen agenda eskualdeka antolatua.

Sustatzaileak:

Webgunea egiteko eta elikatzeko azpian dauden erakundeetako euskara zerbitzuak aritu dira **elkarlanean**. Hauek dira webgunearen eragileak:

- Aezkoako Batzarre Nagusia
- Agoizko Udala
- Antsoaingo Udala
- Aranguren Ibarreko Udala
- Atarrabiako Udala
- Auritz, Erroibar, Artzibar eta Luzaideko Udalak
- Barañaingo Udala
- Baztango Udala
- Berriobeitiko Udala
- Berriozarko Udala
- Bortzirietako Euskara Mankomunitatea
- Burlatako Udala
- Eguesibarko Udala
- Estella-Lizarrako Udala
- Esteribarko Udala
- Galar Zendeako Udala
- Garesko Udala
- Irantzuko Mankomunitatea
- Iruñeko Udala
- Izarbeibarko Mankomunitatea
- Malerrekako Mankomunitatea
- Nafarroako Iparraldeko Euskara Mankomunitatea
- Orkoién, Oltza Zendea eta Etxauriko Udalak
- Sakanako Mankomunitatea
- Tafallako Udala
- Uharteko Udala
- Zaraitzu eta Erronkariko Batzar Nagusiak
- Zizur Nagusiko Udala

Nafarroako Gobernuak proiektua diruz lagundu du.